

Ereduaren egitura: heldutasun mailak

- **1. maila: “azpiegiturak eta gaikuntza”.** Maila honetan, ikastetxeak Premia planak egun zehazten dituen azpiegiturak ditu, eta ikastetxeko irakasleak haiek erabiltzeko gaituta daude. Esaterako, irakasleen % 80k erabil ditzake IKTak ikasgelan.
- **2. maila: “erabilera”.** Ikasgela barnean, irakasleek aldian-aldian erabiltzen dituzte ikastetxeko baliabide informatikoak (IKTen gelak). Ikasgelatik kanpo, berriz, ikastetxea teknologia berrien bidez jartzen da harremanetan prozesuren baten esparruan hezkuntza arloko eragileekin, bide tradizionalak ere erabili arren denboraldi batez. Esaterako, zuzendaritza batzordearen eta irakasleen, irakasleen eta irakasleen eta zuzendaritza batzordearen eta familien arteko ez-ahozko komunikazioa posta elektronikoa bidezkoa da.
- **3. maila: “ikasgela digitalizatzea”.** Ikasgela barnean, ohikoa da irakasgai guztietan IKTak erabiltzea, eta ikasgelak etengabe daude ekipamendu teknologikoaz hornituta, hura egunero erabiltzeko moduan. Ikasgelatik kanpo, berriz, ikasleek eta familiek *online* eskura dezakete ikastetxeari edo, are gehiago, irakasgaiei buruzko informazio jakina, hala nola, ikastetxearen webgunearen, ikasgelako webgunearen, berripaper elektronikoaren... bidez. Informazioa norabide bakarrekoa da funtsean. Ikastetxeak ordu luzez zabaltzen ditu ikasgelak eta IKTen baliabideak eskola orduetatik kanpo, hezkuntza arloko eragileek erabil ditzaten.
- **4. maila: “ikasgela birtualizatzea”.** Ikasgela barnean, ikasleak gaitzeko prozesua nonahiko eta etengabeko prozesutzat hartzen da, eskola orduetatik kanpo ere gertatzen dena, eta, hori dela-eta, plataforma hezigarrien (teleheziketa plataformaren, blogen, extraneten, wikien...) bidez, ikasgela kanpora zabaltzen da eta etengabeko eztabaida pizten da ikasleen eta irakasleen artean. Ikasgelatik kanpo, berriz, ikastetxeak badu plataforma hezigarri bat, Internet bidez erabil daitekeena, hezkuntza arloko gainerako eragileekin etengabe eta bi norabideetan komunikatzeko.
- **5. maila: “ikastetxea birtualizatzea”.** Ikasgela barnean, ikasleak gaitzeko prozesua guztiz nonahikoa da, eta teleheziketa plataforma bat erabiltzen da haren euskarriztat. Ikasgelatik kanpo, berriz, ikastetxea egun osoz dago zabalik, Internet bidez, eta ikastetxea hezkuntza arloko kideak gaitzeko eragile eta gizarte sarea sortzeko sustatzaile eta dinamizatzailea da; sarea, familiek ez ezik, gizarte osoak eratzen du.

